

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko abuztuaren 7an hartutako erabakiaren laburpena: Udako Euskal Unibertsitateak 2020 urtean antolatzen dituen ikastaroetara joateko diru-laguntzetarako deialdia

BDNS(Identif.): 523705

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

Lehen. Onuradunak

Baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

1. Ikastaroa hasten den eguna baino urtebete lehenagotik Vitoria-Gasteizko udalerrian errol-datuta egotea.
2. Matrikula egiten den unean langabea izatea edo unibertsitate-ikasketak egiten aritzea.
3. Jardunaldietara joatea.

Bigarrena. Helburua

Udako Euskal Unibertsitateak 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko azaroaren 18ra antolatuko dituen ikastaroetara joateko bekak ematea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko abuztuaren 7an egindako ohiko bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 1.000 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2020ko azaroaren 23 arte.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 7a

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
ESTÍBALIZ PEREDA SAGREDO